

LA CAIXA FUNDAZIOA: IKERKETA PROGRAMEN INPAKTUA EBALUATZEKO PROPOSAMENAK. DEIALDIA

Deialdiaren xedea:

Erakundeak finantzatzen dituen ikerketa proiektuetan inbertsioak izan duen inpaktua ebaluatzeke metodologia eta prozedura bat proposatuko duten proposamenak aurkeztera gonbidatzen zaitu "La Caixa" Banku Fundazioak.

Garaile suertatzen den proposamenarentzako gehienezko zuzkidura 50.000 eurokoa izango da.

Ikertzaile Nagusiaren ezaugarriak:

UPV/EHUri lotua egotea funtzionario gisara edo estatutuen edo kontratu baten ondorioz, eskaria aurkezteko unetik eta proiektuaren egikaritzeak irauten duen bitartean.

Ikerketa taldeko kideen baldintzak:

UPV/EHUri lotua egotea funtzionario gisara edo estatutuen edo kontratu baten ondorioz, eskaria aurkezteko unean.

OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHurekin duten lotura laguntzaren egikaritzean zehar amaitzen duten ikerketa taldeko kideek ezingo dute gasturik inputatu egoera horrek irauten duen bitartean. INk jakinarazi beharko dizkio, IAeri, proiektuaren egikaritzean zehar egondako bajak.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Proposamenaren deskribapena
- Kronograma
- Aurrekontua
- Ikerketa taldea
- UPV/EHUren baimena deialdian parte hartzeko

Aurrekontua egiteko jarraibideak:

UPV/EHUren bidez aurkeztutako eskariak % 5eko diru-saila eramango dute, aurrekontuan, zeharkako gastuetarako.

OHAR GARRANTZITSUA: 2008ko apirilaren 29ko Erabakiak, UPV/EHUko Estatutuen 315. artikulua garatzeko araudia argitaratzea agintzen duenak, diosenari jarraiki, IRlek **ezingo dute nomina bidezko ordainsaririk jaso deialdi honen bitartez.**

Eskariak aurkezteko epea:

2018ko maiatzaren 21era arte

Eskaria betetzeko UPV/EHUko datuak:

Ondokoak dira eskaria betetzeko behar diren erakundeko (UPV/EHU) datuak:

- Legezko ordezkaria: Jose Luis Martin Gonzalez
- Kargua: Ikerketaren arloko Errektoreordea
- IFK: Q-48/18001-B
- Egoitza soziala: Sarriena Auzoa, z/g
- Posta Kodea: 48940
- Udalerria: Leioa
- Harremanetarako posta elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

Eskariak UPV/EHUn aurkezteko prozedura:

AZKEN EGUNA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2018ko maiatzaren 12a <i>Egun horretatik aurrera, ez dugu bermatzen legezko ordezkariaren bermea behar duen dokumentazioa epe barruan bidaliko denik</i>	IN	I. Eranskina eta aurrekontua bidali, berrikusiak izan daitezten. UPV/EHUko IAEk sinatutako agiria emango du, deialdian parte hartzera baimenduz.
2018ko maiatzaren 21a	IN	Eskari osoa convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali, artxibatua izan dadin.

OHAR GARRANTZITSUA: INk du eskaria epe barruan aurkezteko ardura.

UPV/EHUren harremanetarako informazioa:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- Posta-e: convocatorias.dgi@ehu.eus

Fundazioaren harremanetarako informazioa:

- Tel.: 93 404 6136
- Posta-e: dcasado@fundaciolacaixa.org